

B

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

Topera jarraitzen dugu

Apiril honetan, jarduera garrantzitsuekin jarraitu dugu

Bi ikastaro inportante hasi dira, eta espero dugu ikasleen enplegarritasuna hobetzen laguntzea. Alde batetik, Salmenta Estrategia eta Marketinari buruzko prestakuntza, profil desberdinetako 13 pertsona bildu dituena. Horietatik bost, Europako HAZILAN proiektuko gazteak izan dira. Inskribatutako guztiek aste honetan bertan amaitu dute prestakuntza teorikoa, eta maiatzean, ikasitako guztia praktikan jarriko dute, merkatuan beren lehiakortasuna hobetu nahi duten enpresa desberdinetan.

Ofimatika ikastaroa ere hasi dugu, ikasleek [Profesionaltasun Ziurtagiria \(CP\)](#) atera dezaten. Hau da, homologatutako prestakuntza ibilbide askotan aurki daitekeen informatika modulua. Ikastaroa zeharkakoa da CP desberdinetarako: administrazio kudeaketako jarduerak, giza baliabideen kudeaketa integratua, zerga prozeduren kudeaketarako laguntza, eta auditoriarako kudeaketa kontablea eta administrazio kudeaketa.

Hilaren 25ean, "NOLA ERAKARRI BEZEROAK KANAL DIGITALAREN BITARTEZ" izeneko ikastaroa hasi da. Ikastaro honi esker, lanean daudenen, ekintzaileen eta lan aukeren bila ari direnen interesak uztartu ahal izan dira. Aipatutako lehen ikastaroaren eta honen helburua da pertsona aktiboen gaitasun teknikoak hobetzea, etengabe bezero berri bila ari den enpresa merkatuari erantzuna ematen laguntzeko.

Bestalde, apirilaren 20an, SPRI eta Getxolanekin batera, enpresei zuzendutako jardunaldia antolatu dugu, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen dituen diru-laguntzak ezagutzeko –INNOBIDEAK programa-. Horrela, lehen eskutik ezagutu ahal izan ditugu diru-laguntza lerro ezberdinak: [LEHIABIDE](#) (produktua edo merkatua dibertsifikatzera zuzendua), [KUDEABIDE](#) (kudeaketa aurreratuari begira) eta [PERTSONAK](#) (enpresaren erabakietan langileen parte hartzea jorratzen duena). Horren gaineko proiekturik baduzue buruan, zuen eskura gaituzue bideratzen laguntzeko.

Lan eskaintzak tramitatzen jarraitu dugu, eta zehazki, azpimarratu nahiko genuke oso garrantzitsua dela, horretarako, lan eskatzaileek beren datuak eguneratzea gure datu basean. Datuak eguneratzen ez badituzue, ezin izango dizuegu lan eskaintzarik bidali. Hortaz, Behargintzara etortzeko denbora apur bat hartu, egiaztatzeko zuei buruz daukagun informazioa, baita zuen lan esperientzia eta prestakuntza eguneratzeko ere.

Zain gaituzue

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailatza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Enpresen direktorioa

Ikusi duzuen bezala, [Behargintza Leioa](#) webguneak udalerrian dauden enpresen sailkapen bat dauka.

Enpresa berriek, baita udalerrian denbora daramatenek ere, esparru hau erakusleihu moduan erabiltzeko aukera dute, beraien argazkiak eta zerbitzuen deskribapenak jarritz.

Baina, zein onura ekar diezadake?

Gero eta gehiago, herriko enpresek prestakuntza kurtsoak antolatzeko eta planifikatzeko eskatzen digute, merkatuan begi-bistan egoteko, merkatu berriak identifikatzeko edo beraien zerbitzuak bezeroei aurkezteko.

Horrela, direktorioa enpresak iragartzeko beste aukera bat da. Askotan, Leioatik kanpo dauden enpresen eskaerak jasotzen ditugu direktorioan agertzeko, herrian dauzkagun enpresekin kontaktuan jartzeko sare txiki onen bitartez. Zoritxarrez, beti esaten diegu enpresa horiei, esparru hau Leioako enpresentzat dagoela pentsatuta eta bakarrik udalerriko enpresak ager daitezkeela hor.

Horrexegatik, gustatuko litzaiguke zuen egoera berrikustea, egiaztatzeko aurkezpen txartel bezala erabili ahal duzuela. Egiten dudana erakusten al du? Esparru hau erakusleihu bezala erabil dezaket?

Nire enpresa ez da agertzen: Zer egin behar dut?

Oso erraza da. ENPRESA SUSTAPENAREN arloan, Enpresen Direktorioan, zure negozioa gehi dezakezu. Harremanetan jarriko gara zurekin bidalitako informazioa konprobatzeko. Behin eginda, eskaera onartuko dugu.



Agertzen naiz, baina nola hobe dezaket agertzen den informazioa?

Behargintzarekin harremanetan jarri eta agertu nahi dituzun aldaketak jasoko ditugu.

Autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko diru-laguntzak



Pasa den martxoaren bukaeran, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen artean, autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri ziren. Laguntza horiek Bizkaiko Foru Aldundiak proposatu ditu eta Leioako Behargintza erakunde laguntzailea da lan horretan.

Laguntzak eskatzeko deialdia oraindik ez dago irekita, baina 53/2016 Foru Dekretua irakurriz, horien arauketa eta nobedade nagusiak ezagutu ahal ditugu.

Artikulu honen bidez, laguntzen aspektu aipagarrienak azpimarratu eta ekintzaileak Leioako Behargintzara hurbiltzeko motibazioa eman nahi dugu, negozio plan on bat garatzeko aholkularitza eta heziketa jaso ditzaten.

Laguntza hauek enpresek eskuratu ahal izango dituzte, zeinahi dela ere haien izaera juridikoa, eta Ekonomia-jardueretan alta emanda egon behar dute 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 15era arteko epearen barruan. Entitate onuraduneko pertsona sustatzaile batek, gutxienez, egiaztatu behar du ekonomia jardueretan alta eman aurreko berehalako unean langabezian zegoela. Halaber, pertsona sustatzaile horrek egoitza Bizkaian eduki behar du, gutxienez hiru hilabete jarraitutan, eta ekonomia-jardueraren altaren aurre-aurretik.

Gainera, entitate onuraduneko sustatzaile batek, gutxienez, egin behar izan ditu enpresa proiektuak sortzeko eta kudeatzeko prestakuntza, baita banan-banako aholkularitza ere.

Entitate onuradunak, gutxienez, 5000 euroko diru-laguntza jasoko du, eta gehieneko diru-laguntza, berriz, 15 000 eurokoa izango da. Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak, hau da, aurkezten diren eskabideak erkatu egiten dira eta dekretuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira hurrengo balorazio-irizpideak: langabezian dagoen denbora, sustatzailea bazterkeria-egoeran dauden taldeetako batekoa izatea, sustatzailearen adina, sustatzailearen egoitzako udalerrian erregistratutako langabezia-indizea, Ogasunean altan dagoen ekonomia-jardueraren epigrafea, eta forma juridikoa. Entitate batzuek puntuazio berbera lortzen badute, lehentasuna izango dute, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Erregistroan, eskabidearen erregistro-hurrenkerearen arabera, aurretik daudenek.

Azkenik, gogorarazi nahi dizuegu, Aldundiak Behargintza Leioaren laguntzarekin eskaintzen duen laguntza honetaz gain, beste laguntza batzuk daudela enpresak abian jarri eta sortzeko, baita enpresak finkatzeko ere.

Prestakuntza

Oposizioetara aurkeztuko zara?

Informazioaren Teknologien Erabilera-ziurtagiria (IT Txartela) eta METAPOSTA lortzeko presta zaitetz



IT Txartela informazioaren teknologietan oinarrituko gaitasuna ziurtatzeko sistema bat da, eta pertsona batek informatikako tresnen eta Interneten gaineko zer ezagutza duen ziurtatzen du.

Informazioaren Gizartea esaten zaion horretan moldatzeko gaitasunak egiaztatu nahi dituzten herritar guztiei zuzenduta dago, eta helburu bikoitza du:

- **Herritarrak motibatzea** Informazioaren Gizartearen arloko gaiak ikas ditzaten, beren ezagutza egiaztatuko duen ziurtagiri baten truke.
- Erakunde bateko pertsonak edo etorkizunean kontratatuko direnek IKTetan duten gaitasuna **objetiboki ebaluatzeko aukera** ematen die tresna honek enpresei eta administrazioei.

Administrazio publikoek eta enpresa pribatuek IT Txartelaren ziurtagiria eskatzen dute lanpostu jakin batzuk eskuratzeko, eta Euskal Administrazioiko oposizioetan, IKTen erabilerarekin lotutako puntuak bermatzen dituzte IT Txartelek.

IT Txartelei buruzko informazio gehiago nahi baduzu eta prestakuntza zure etxetik bertatik egin demoen bitartez, sartu esteka honetan eta zure ezagutzak egiaztatu. <http://bitly.ro/m>

Ezinbestekoa da Metapostan alta hartzea, aurretik, ziurtagiri batean matrikulatzeko, IT Txartelak ezagutzak ziurtatzen dituen titulua zure Metapostako postontzi pertsonalera bidaliko baitu.

Hortaz, IT Txartelaren probaren bat egin baino lehen, ezinbestekoa da METAPOSTAN erregistratuta egotea.

Metaposta postontzi elektronikoko eta Interneteko segurtasun kutxako DOANEKO zerbitzua da, eta IT Txartelak erabili egiten du eskaintzen dituen segurtasun, konfidentziasun eta legezko baliozkotasunagatik.

Nola har daiteke alta Metapostan? Informazio gehiago [hemen](#).

Orientazioa

MAIATZEKO TAILERRA: KOMUNIKAZIO GAITASUNAK



Datorren maiatzaren 9an, komunikazio gaitasunei buruzko tailerra hasiko da Behargintza Leioan, lan elkarrizketak gainditzeari begira prestatutakoa.

Gure burua ezagutzera emateko, eskaintza bati erantzunez edo gure ekimenez, enpresara bidaltzen ditugun aurkezpen gutuna eta Curriculuma ekintza komunikatiboak dira, baita lan elkarrizketa ere. Oinarrizko arauak ikas ditzakegu egoera horietan segurtasunez jokatzeko, eta ondoren, trebakuntzaz, garatzen joan.

Interesatzen zaigun eskaintzarako gure curriculuma bidali ondoren, hautaketa prozesuko lehen zatia ondo badao, lan elkarrizketarako dei egingo digute.

Elkarrizketara deitzen badigute, puntualak izan behar dugu eta prest joan. Komeni da enpresari buruzko informazioa edukitzea, askotan, Internet bidez lor daitekeena. Horrez gain, erantzunak prestatu behar ditugu egin diezazkiguketen galderetarako. Alde hori lantzeko, lagunekin praktika dezakegu, eurek esan ahalko baitigute nola azaltzen garen beste baten aurrean eta galdera jakin batzuei erantzuterako orduan, konprometituak ere izan daitezkeelako.

Elkarrizketan zehar, oso garrantzitsua da arreta jartzea hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioei, hau da, nola igortzen diogun hartzaileari helarazi nahi diogun mezua. Hiztegia zaindu behar dugu, baina ekintza komunikatiboaren inguruan dagoen guztia ere bai, adibidez: keinuak, ahotsaren tonua, gorputzaren jarrera, janzkera

Agenda

Maiatza:

Ikastaroa: Merkataritza elektronikoa - Onlineko denda

Lekua: Bilbo. Bizkaia

Eguna: 05/04/2016

Ekitaldia: Beacon teknologia nola erabili salmentak hobetzeko

Lekua: Zamudio. Bizkaia

Eguna: 05/18/2016

Ekitaldia: Nola sistematizatu zure komunikazio plana: Outreach Tool

Lekua: Zamudio. Bizkaia

Eguna: 05/31/2016



Dirulaguntzak

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 15koa, honako ebazpen honetan egindako hutsak zuzentzekoa: «Ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, industria arloan energia-eraginkortasunaren aldeko inbertsioak sustatzeari begirako laguntzen deialdia argitaratzen duena». [Acceso al Boletín](#)

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2016rako laguntzen deialdia argitaratzen da. «Lehen Aukera» programa. [Acceso al Boletín](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 72/2016 FORU DEKRETUA, apirilaren 12koa. Honen bidez, Ekintzailtzako eta Gizarteberrikuntzako Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2016. urterako. [Acceso al Boletín](#)

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2016ko diru-laguntzen deialdia argitaratzeko dena. [Acceso al Boletín](#)

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 13koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Global Lehian programaren diru-laguntzak emateko 2016ko deialdia. Programa horren helburua da banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzea. [Acceso al Boletín](#)

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita txanda-kontraturako laguntzen deialdia. [Acceso al Boletín](#)

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 4koa, Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendari Nagusiarena, Industria arloan Energia eraginkortasunaren aldeko inbertsioak sustatzeari begirako laguntzen deialdia argitaratzen duena. [Acceso al Boletín](#)



Kokapenean adituak

Kokapenean adituak gara Upymen. Enpresa berriei edo handitzen ari direnei beraien jarduera garatzeko kokalekurik egokiena aurkitzen laguntzen diegu.

Arkitektura eta diseinuan lan egiten dugu, giltza eskurako proiektu integralak egiten ditugu, merkataritza lokalen eraikuntza eta berrikuntzak. Gure ezaugarri nagusia da negozio berriei kokapenik egokiena aurkitzeko aholkularitza ematen diegula. Gure helburua da ekintzaileari lehen unetik laguntzea lokalaren aukeraketan, negozioari etekinik handiena ateratzeko.

Gure desberdintasuna: Kokapena

Es importante reflexionar ante determinados aspectos que en principio no se tienen en cuenta pero que son fundamentales para enfocar el negocio en el buen camino, como la idoneidad de la ubicación del local (¿se elige el local por oportunidad inmobiliaria o por la oportunidad de cubrir una demanda no satisfecha de clientes en una zona concreta?), esta es la clave y en gran parte el éxito de una empresa, factores como la visibilidad, el tránsito peatonal que soporta, aparcamientos o comunicaciones, atractivo comercial de la zona, planes futuros de nuevas viviendas y locales comerciales, análisis de la competencia, son determinantes a tener en cuenta para maximizar las ventas de un negocio.

Analizamos los datos más relevantes del área de estudio (perfiles y porcentajes de población, de consumo, competencia...etc.) procesándolos con software GIS para crear mapas de calor y así conocer cuáles son las zonas más adecuada para establecer el negocio. A continuación estudiamos el encaje de la empresa en los locales disponibles en esas zonas y elaboramos una comparativa teniendo en cuenta los factores de ubicación, como los económicos y en funcionamiento interno para que el empresario pueda tomar la decisión con todos los datos..

Abantailak

En Upyme ofrecemos un servicio integral, desde que surge el proyecto empresarial hasta que empieza a funcionar por lo que, además de este servicio inicial de asesoría en la búsqueda de la ubicación más adecuada, ofrecemos todos los servicios necesarios hasta la apertura del local. Asesoría en la redacción de contratos, proyectos, entorno legal, licencias, o normativas de obligado cumplimiento que especifican las condiciones físicas y técnicas que debe

reunir el local para desempeñar la actividad, acústica del local, medidas de accesibilidad...etc.

Las ventajas de contar con un único interlocutor son muchas, hay una mejor coordinación, se evitan imprevistos, no se diluyen responsabilidades y no hay sobrecostes. No obstante, cada servicio se oferta de manera aislada sin compromiso de contratar fases posteriores.

Upyme ostalaritzarekin

Para aquellos gerentes de negocios de hostelería que estén pensando reformar sus locales, Upyme cuenta con experiencia en el sector, ofrece un servicio de asesoramiento a través de un estudio de mercado que identifica al cliente potencial, saber sus gustos y necesidades y cuál es el perfil de tu cliente, dónde se encuentra y cómo consume son las claves necesarias para enfocar de la mejor forma tu negocio de cara a conseguir una mayor rentabilidad. Porque en Upyme, en ningún momento del proceso olvidamos que el objetivo es rentabilizar tu inversión.

Nos hemos especializado en este sector debido a la cantidad de negocios de hostelería que en los últimos años se están reformando, las nuevas normativas acústicas y de accesibilidad conllevan reformas en los establecimientos, una buena iluminación, una mejor distribución del espacio, ampliar o variar tu oferta o simplemente darle un aire nuevo a tu local, te ayudará a proyectar una imagen atractiva, a diferenciarte de la competencia y con ello a fortalecer tu negocio aumentando tus ventas e ingresos.

Realizamos una previsión de costes en función de la inversión y un cálculo de la rentabilidad en base a los modelos de reforma que proponemos siempre pensando en maximizar los ingresos.

Nos basamos en fuentes estadísticas actualizadas como el Eustat, INE, padrones municipales... y en criterios propios fruto del desarrollo y proceso de trabajo en nuestro campo.

“Los tres elementos esenciales para alcanzar el éxito en un negocio son: ubicación, ubicación y ubicación” Ray Kroc, Fundador de McDonald’s

Kontsultatu, konpromisorik gabe.

c/ Estartetxe nº 5, 1º dpto.105
Tfno. y Fax: 94 431 54 52
Upyme.com | upyme@upyme.com

